

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Inoiz baino euskal liburu gehiago argitaratu zen 91n


Aurreko urtean baino 138 titulu gehiago argitaratu zen euskaraz 1991n. Hori dio Joan Mari Torrealdaik Jakin aldizkariaren 73. zenbakian euskal liburugintzari buruz egin duen azken azterketan.

Torrealdaik dioenez, bertsio guztietan hazi da liburua. Itzulpena gehien (%31,5), baita sorkuntzazkoa eta berrargitarapena ere (%20). Lehen argitarapenak, berriz, hazkunde txikiagoa izan du (%15,7). Beste gai-sail guztien gaintik, zalantzarik gabe haziz doan gai-saila haur eta gazte-literatur liburuarena da. Gora barik behera egin dutenak, berriz, helduen literatur liburu eta irakaskuntzakoak izan dira. Bestetik, produkzio propioak erditik behera segitzen duen bitartean, itzulpena haziz doa etengabe.

- Euskal jatorrizko liburu berria haur-literaturan hezuramitzen da nagusiki (%29) eta helduen literaturan ondoren (%17,5).
- Berrargitarapena irakaskuntza liburuan pilatzen

da, urtero bezala, baita haur eta gazte-literaturan ere. Kontutan izan berrargitarapen guztien lautik hiru, bi sail hauen artean kontsumitzen direla.

- Itzulpenak marka guztiak jo eta pasa ditu. Itzuli diren liburu guztien erdia baino gehiago haur eta gazte-




literaturakoa da.

- Elebiko liburua arlo instituzionalean kokatzen da batez ere.

Euskal liburugintza polarizatuegi ikusten du Torrealdaik irakaskuntza eta literaturaren inguruan. Bien artean liburugintzaren lautik hiru hartzen dute urtero.

Editoreen munduari dagokionez, hiru ondorio atera ditu egileak;

- Edizio ez-komertziala edizio instituzionala da gehien bat. Erakunde politikoen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak) eta finantz erakundeen eskutik etorri da.
 - Produkzioaren %75a edizio komertzialen bidetik atera zen. Horien %10a kanpoko editoreei zor zaie.
 - Elkar argitaletxea da editore komertzialetan nagusi, produkzio osoaren %32,5arekin. Erein eta Ibaizabal datoz ondoren.
- Torrealdaik dioenez, 1991 ez zen batere txarra izan euskal liburugintzarentzat.



Joseba Intxausti, euskalgintzan aitzindari

Euskarak eta euskal kulturak azken urteetan izan duten sustatzailerik handienetakoa dugu

Joseba Intxausti, 56, segurarra.

Gazte sartu zen Arantzazuko frantziskotarren konbentura. Teologia egitera itzuli zenean, Jakin aldizkarian hasi zen laguntzen.

Euskara batu beharrak arduratzen zituen. Denetara hamar urtez zuzendu zuen Jakin, bi alditan. Bartzelonan Historia Moderno eta Garaikidea ikasi zuen.

Anaitasuna aldizkaria ere zuzendu zuen. Urte zailak ziren, bai Euskal Herrian bai eta aldizkariaren barruan ere. Berak idatzi zuen UZEI sortzeko egitasmoa eta bost urtez zuzendu ere bai. Udako Euskal Unibertsitatean eta EUSENOREn ere esku hartu izan du.



Joseba Intxausti

Enrique Forondarekin batera, eta HPINen eskariz, *Euskal Hitz* sortu zuen, euskarari buruzko lehen

erakusketa orokorra. Ondoren beste batzuk etorri ziren.

Erakusketa horren ondorio zuzena Euskara, *euskaldunon hizkuntza* (1990) liburua izan zen. Oraintxe atera dira liburu horren espainolezko eta frantsesezko edizioak. Berak zuzendu eta koordinatu zuen Euskadiko Kutxak argitaratutako *Euskal Herria* lan

entziklopedikoa. Euskaltzain urgazle da eta Euskararen Aholku Batzordeko kide ere bai. Hizkuntzen historia sozialak kezkatzen du eta horretan ari da, urteetan zehar bilduriko materiala antolatzeaz gain.

Euskara abadeentzat

Bizkaiko Elizbarrutiak euskara ikastaro bi antolatu ditu Bizkaiko elizetan euskara erabili nahi duten abadeentzat.

Lehen ikastaroa euskara ez dakiten abadeentzat da. Dagoeneko hogei dira astean behin hiru orduko eskolak hartzen ari diren apaizak. Beti hurrengo igandeko mezatan erabiliko dituzten testu biblikoak hartzen dituzte langai mintza-praktika, irakurketa, idazketa eta ariketak egiteko. Eskolako lanak astean zehar du jarraipena, etxean egin beharreko ariketak medio.

Bigarrena, alfabetatze-ikastaroa, txikitatik euskara jakin bai baina idazteko-eta apenas landu duten apaizentzat da.

Ikastaroon helburua da abadeak liturgia edota bestelako erlijio ekitaldiak euskaraz zuzentzeko gai izan daitezen.

Ai Geala taldea sortu berri da Beasainen. Talde honen xedea euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzea da. Sorrerako bilera Beasaingo Udaletxeko areto nagusian egin zuten Ai Gealako lehen 70 kideek. Ideologia guztien gainetik, euskararen alde lan egiteko ahalik eta herritar gehien biltzea nahi du Ai Gealak. Lan batzordeak sortu eta bazkideak lortzeko kanpainari ekin diote.

Hizkuntza eskubideen aldeko batzordea eratu berri da Baionan. Bere helburua Frantziak Europako Hizkuntza Minorizatuak zaindu eta iraunarazteko Agiria sinatzea da. Agiri hau Europako 11 estatuk sinatu zuten, Frantziak ezik. Antzeko taldeak sortu dira Alsazian, Britainian, Kortsikan eta Okzitanian. Martxoko hauteskundeetako hautagaiei Agiria beregana dezatela eskatuko zaie.

Irati Irratia sortu da Nafarroako Aezkoan. Euskara bultzatzea eta bertako jendearen harremanak sendotzea ditu jomuga. Aezkoako Batzarra da iratiaren jabea, baina gestioa Irati Elkartearen eskuetan dago. Irratiaren aurrekontua 6.000.000 pezetakoa da. Nafarroako HPZnK ere 1.400.000 pta.rekin lagundu du. Bi langile ditu eta euskaraz eta gaztelaniaz helduko zaie bailarako 2.000 biztanleei.

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak doaneko bi argitalpen kaleratu berri ditu. *ElgoiBARREN* informazio orokorreko astekaria Olentzerorekin batera plazaratu zen. Elkartearen berri emateko, berriz, Izarren hautsa berripapera atera dute. Elgoibarko Izarra elkarteak 1963an sortu zen eta lan garrantzitsua egin du euskararen alde. Gaur egun belaunaldi berri batek hartu du elkartearen zuzendaritza.

Eman bidea euskarazko bide seinaleei

Laster izango dugu esku artean Euskal Herri osorako bide seinaleak euskaraz emango dituen argitalpena.

Orain hamar urte, Euskararen Erabilpena Arautzekozko Legeak arautu egin zuen bide seinaleetako hizkuntza erabilpena. 10. atalak dioenez, kale eta bideetako seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira. Legearentzat garrantzi handikoa da nazioarteko arauak eta bidaiarekiko ulergarritasuna eta segurantza kontutan hartzea bide seinaleak hizkuntza bietan jartzeko orduan.

Euskararen erabilera gero eta nabarmenagoa izan arren errepide eta hiri barruko kaleetako seinaleetan, tamalez, hauek ez dira beti, euskarari dagokionez behar bezain txukun eta egokiak izan ohi.

Egoera hau dela eta, lantalde bat eratu zen, Euskararen Legeak

bide seinaleei buruz esandakoa bete, hizkuntza irizpide amankomunez jokatu, hizkuntza zuzentasuna bermatu eta esandako gaiak eskumena duten sail eta departamentuak egitekoaren garrantziaz jabeazteko helburuekin.



Taldera arlo honetan ekarpenik eskain ezazaketenak eta gaiak eskumena duten erakundeak bildu ziren: hiru foru aldundiak, EUDEL, Donostia, Gasteiz eta Bilboko udalak, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia, Euskal Kultur Erakundea, UZEI, HAEE-IVAP, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila eta HPIN.

Lantalde honek burutu du bere lana eta dagoeneko osatu da euskarazko bide seinale eta iragarpenen zerrenda. Orain argitalpena prestatzea geratzen da.

Mikel Atxaga, 60, kazetari

urnietarrak Deiadarrak liburua argitaratu du. Liburu honetan Mikel Atxagak Zeruko Argia aldizkarian eta Deia egunkarian argitaratutako 97 artikuluak datoz. Deiadarrak Txertoa argitaletxeak plazaratu du, Iparragirre editorialarekin batera.

Philippe Goyetche, .34,

Iarresorotarra (Lapurdi), Seaska, Ipar Euskal Herriko ikastolen elkarteko lehendakari berria da. Jean Louis Maitia ordezkatu du. Seaskako idazkari nagusia izan zen lau urtez. Frantziako Herrilan Saileko funtzionaria da.

Rosa M. Pagola, 43, doktore

iruæarrak, Bonaparte printzearen lanetan oinarrituta, bizkaiera aztertu eta ikertu duen aditu taldea zuzendu du. Euskal Filologian lizentziatua eta Euskal Hizkuntzalaritzan doktorea, Deustuko Unibertsitatean irakasten du. Euskaltzain urgazlea dugu.

Euskara, la langue des Basques

Euskara, euskaldunon hizkuntza izan zen Joseba Intxaustiren jatorrizko liburuaren (1990) izenburua. Orain frantsesez eta gaztelaniaz, *Euskera, la lengua de los Vascos*, datorkigu, Eusko Jaurlaritzako HPIN eta Elkar argitaletxearen eskutik.



EUSKARAREN BERRIPAPERARA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Wellingtono Dukea, 2 01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelera

Izen-deiturak:.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Probintzia:.....

Tfnoa:.....

Galdezka

Euskararen erabilera

G. Zerk erabakitzen du zure ustez euskararen erabilera?

E. Euskararen erabilera zerk erabakitzen duen eta, esan beharra dago ez datzala, sarritan esan den bezala, hizkuntzarekiko leialtasunean edo leialtasunik ezean, hots, hiztunaren beraren nahian eta hauek direla arrazoiak:

- Gizarte egitura: aztertutako gune bakoitzeko (familia, lagunartea, lana) hiztunen arteko euskaldunen proportzioa eta, era berean, euskaldun horiek bizi diren gune soziolinguistikoa; bigarren honek eragin handia du aurrekoan.

- Hiztunak berak nola menderatzen duen euskara, hau da, adierazi nahi duena zein hizkuntzatan adierazten duen errazago, euskaraz ala gaztelaniaz.

Bigarren mailako eragile aipa daitezke euskararekiko interesa eta sustatzeari begirako jarrera eta baita adina eta euskarazko komunikabideen erabilera ere.



M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Literatur garaikidea itzultzeko bekak

Europako Batzordeak literatur obra garaikideen itzulpenarako dirulaguntzak bideratuko dituen deialdia atera du EEko Aldizkari Ofizialean (C/5/93).

- Dirulaguntzak beren jatorrizko kultura ispilatu eta Europako irakurleko zabal batentzat interesgarri izango diren lanen itzulpenei emango zaizkie.

- "Literatura garaikide"tzat lehen aldiz 1945etik aurrera batez ere argitaratu dena ulertzen du Batzordeak.

- Lehenetsuna emango zaie esparru txikiko hizkuntzetatik zabalkunde handiko hizkuntzetara egindako lanen itzulpenei.

- 1993rako testu dramatikoek emango zaie lehenetsuna.

- Komunitatearen dirulaguntzarik gabe merkatu europarrean argia inondik inora ikusiko ez luketen lanentzat

eskainiko da laguntza.

- Literatur lanen laburpenen itzulpenentzat ere dirulaguntzak eman ahal izango dira.

- Proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 14 izango da. Epeak betebeharrekoak izango dira eta ezin izango dira luzatu. Batzordeak 1993ko ekainaren 15a baino lehen hartuko du erabakia. • Dirulaguntzak itzultzailearen ordainen %100a estaliko du.

Berri gehiago eta baita eskaer-orriak jasotzeko helbide hauetara jo:

- Comisin de Comunidades Europeas. c/Serrano, 41, 5^a planta, E-28001, Madrid. Tfnoa.: (91) 435 17 00.

- Commission des Communautés Europeennes. 288, boulevard Sain-Germain, F-75007 Paris. Tfnoa.: 40 63 40 99.

✓ Kontutan hartzeko

- **Literatura Ikastaroa.**

Labayru Ikastegiak antolatua, aspaldiko idazleen inguru historikoa eta literarioa aztertzeko. Apirilaren 6ra arte. Bukaeran agiriak banatuko dira. Tfnoa.: (94) 443 76 84.

- **Soziolinguistika**

ikastaroa. Baztan eta Malerrekako Euskara Zerbitzuak eta Bortziritako Euskara,

Mankomunitateak eratuta.

Otsailaren 24an hasita, martxoaren amaiera arte. Hitzaldiak eta mahainguruak. Tfnoa.: (948) 63 41 25.

- **"Ignacio Aldecoa" ipuin sariketa.** Arabako Foru Aldundiak antolatuta. Euskara eta gaztelarazko lehen sariek milioi erdina pta. jasoko dituzte.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA